

txintxarri

Badoaz jaiak, betor uda!

#sanpedroak2017 #sorginjaiak17



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

CIFP USURBIL LHII

www.lhusurbil.eus

943 36 46 00

Etarte bidea, 9 (Zubieta) - 20170 Usurbil

MATRIKULA EPEA: Uztailaren 13tik 19ra (biak barne)

Fabrikazio mekanikoa



Elektrizitate-elektronika



Administrazioa



Produktio zerbitzu
eta mantenimendua



Energia eta ura



Erdi eta goi-mailako zikloak
A, B eta D ereduak



A group of young people are dancing in a public square during the San Pedro festival. The scene is lively and festive, with people in colorful clothing and some carrying piggybacks. The background shows a paved square with buildings and other festival-goers.

*San Pedro jaietako
argazki eta bideoak*

txintxarri.eus

*orrialdean dituzue
ikusgai*



Itzali da magia

Isildu dira musikariak, amaitu dira barre algarak, txosnetako musika aparatuak itzali dituzte, hasi dira kaleak eta tabernak garbitzen... Sorginak atsedean hartzera joan dira. Ez da urtebetean sorginkeriariak sentituko Lasarte-Oriako kale kantoietan. Itzali da magia. Amaitu dira 2017ko San Pedro jaiak. Egunerokotasunera itzuli da herria. Lanean hasi dira gehientsuenak. Nekez beteko da berriz Okendo plaza

festetan bezainbeste. Nekez itzuliko da Sorgin Jaietako giro ederra auzoetara. Ez da musika taldeen burrunbarik entzungo hurrengo urtera arte.

Baina ez da triste jartzeko unea. Pasioz betetako egunek eman dutena gogoratzekoa baizik. Sanpedroetan bizitakoak memorian ondo gorde behar dira, eta hurrengo urtekoak ere jai ahaztezinak izateko lanean hasi.

Beste behin euriak parte hartu du festetan, inork gonbidatu ez arren. Baina ez da gai izan lasarteoriarren festa gogoia itzaltzeko, eguraldi txarrari aurre egin baitio festak.

Bada garaia orain, lau egun handien ondoren, kaleak ez ezik gorputzak ere normaltasunera itzultzeko. Uda gutzia dago aurretik, eta sorginak itzuliko dira hurrengo urtean.

Hurrengo
zenbakia

txintxarri

Uztailaren 14an
Informazio gehiago txintxarri.eus
orrialdean edo sare sozialetan

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa

Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega,
Martin Vicioso, Lorena Lujanbio,
Adrian Garcia.

Publizitatea

Arantzi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odrizola, Maider Seguroia,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi.

Administrataria

Nerea Garciarena.

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ekainaren 28a

Gaztetxoenek piztu dituzte sanpedroak

Horrenbeste itxaron ostean, iritsi zen eguna azkenean: San Pedro bezpera goizean haurrek hasi zuten festa. Semblante Andaluz izan da aurten omendua, eta elkarteko gazteen dantza taldeek piztu zuten txupina. Eguraldi onak ozta-ozta eutsi zion suziria bota arte, eta algara eta musika artean eman zioten gaztetxoek ongi gorria festei. Txupina lehertzearekin batera eztanda egin baitzuen festak: txarangaren erritmora hasi ziren mugitzen bertaratutakoak, eta koloretako puxikak askatuta dantzan hasi ziren airean.

Uretan bustiz hasi zuten eguna gaztetxoenek, kiroldegian egin zituzten ur jolasetan. Ondoren pailazoek antzezlanak izan zuten ikusgai. Eta egun osoan txarangaren doinu alaiak lagundu zituzten. Baina zaharragoek ere izan zuten lekua festen irekieran: Ttakin Kultur Elkartean eskutik, Patxintxi sariak banatu zituzten. Jesus Mari Egizabal eta Apoloni Otxandorena hautatu dituzte 65 urtez gorako pertsona maitagarri eta goxoena.

Musika izan zen protagonista goizean. Txupinaren aurretik, Udal Musika Eskolako ikasleak atera ziren kalejiran trikitixen eta panderoen doinuak lagunduta. Tamalez, eguraldi txarra ere present egon zen festaren hasieran. Txupinaren ondoren euri zaparrada batek ilundu zuen zerua, eta haurrentzako *Tomaxen abenturak* antzezlanari eragin zion. Pailazoak ahalegindu ziren giroa alaitzen, baina tarteka arkupeetako aterpeetatik jarraitu behar izan zuten ikuskizuna.



Ur jolasak egin zituzten gaztetxoek kiroldegian, txupinazoa piztu aurretik. TXINTXARRI

Semblante Andaluz elkarteko gazteek piztu zuten haurren txupina San Pedro bezperan, udaletxe zaharrean. TXINTXARRI



Txupinaren ondoren *Tomaxen abenturak* antzezlanak ikusi ahal izan zuten. TXINTXARRI



Jesus Mari Egizabal eta Apoloni Otxandorena Patxintxi sarien irabazleak, txapelarekin. TXINTXARRI



Ohiko moduan, txupinaren ostean puxikak askatu zituzten. TXINTXARRI



Oriako txarangak girotu zituen kaleak, herritarrek festa giroan harrapatuz. TXINTXARRI



Noaoa
BIDATAK

ABUZTUAREN 29TIK IRAILAREN 5ERA
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.

IRAILAREN 26TIK URRIAREN 4RA
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.

Tel: 943 373 613 • info@noaoa.eus • www.noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, 20160 LASARTE-ORIA

Nagusia 49,
Lasarte-Oria
943 37 02 90

Jantzi denda
INQUIETUD

MERKEALDIK

Sorgin Dantza eta musika, hasteko

Motorrak berotu ostean, iritsi zen festetan bete-betean murgiltzeko unea. Sorgin Dantza tradizio bihurtu da dagoeneko herrian, oso zabaldua, gainera. Oriatik abiatu zen dantza arratsaldean, Okendo plaza helburu. Adin guztietako jendeak parte hartu zuen. Une berean, gazteak Isla plazatik abiatu ziren kuadrillen jaitsieran.

Lehenengo egunean ez zen musikarik falta izan. Sorgin Jaiek antolatuta, Pontxo Rock jaialdia egin zuten REM ikastetxean. Rock zaleen gozamenerako, bost taldek astindu zuten herria iluntzean: ODT, Txinatxain, Bar Remigio, The Rockanrol Lobsters eta Rock Kam Broom taldeak gonbidatu zituzten.

Baina egon zen ere beste ikuskizun mota batez gozatzeko aukera. Golden Apple Quartet taldeak abestu zuen Okendon, eta lepo bete zen plaza. Instrumenturik gabe, eta ahotsa soilik baliatuz, bertaratutakoak liluratu zituzten. Kontzertu berezia izan zen Mikel Urreizti lasarteoriatarrentzat, laukotearen parte denetik lehen aldiz jo baitzuen herrian.



Golden Apple Quartet taldeak arratsaldeko txupina eta gero eskaini zuen emanaldia. TXINTXARRI



Isla Plazatik hasita, herriko kale eta taberna ugari bisitatu zituzten gazte koadrilek. TXINTXARRI



Hainbat herritarrek hartu zuten parte arratsaldeko Sorgin Dantzan. TXINTXARRI



Biyak Bat egoitzak antolatuta, hainbat koru aritu ziren kantuan Brigitarren komentuan. TXINTXARRI



Rock musikaren bilgune izan zen Elizate plaza. Irudian, Rock Kam Broom taldea, dena ematen. TXINTXARRI

SEMBLANTE ANDALUZ
25. urteurrena

Semblante Andaluzen itzarongo zaituztegu gure 25. urteurrena ospatzeko!

Golf plaza 2, Lasarte-Oria - Tel. 943 36 36 99

BIYAK BÁT

Jaietan ondo pasa izana espero dugul

Kale Nagusia 40
Tel: 943 36 39 64
LASARTE-ORIA

Bi txupin eta afari bat, festa erabat lehertzeko

Arratsaldeko suziriak ireki zituen ofizialki San Pedro jaiak. Semblante Andaluz elkarteak kideak arduratu ziren aurtengo txupina pizteaz. Udaletxeko balkoian gobernu taldea lagun zutela, esker hitzak izan zituzten herritarrentzat. Kolorez bete zen orduan plaza: puzgarriak airean, eta koloretako zintak hegan, giro ezin hobean piztu zituzten sanpedroak. Horren ostean, eta Ttakun Kultur Elkarteak antolatuta, zikiro afaria egin zuten udaletxeko arkupeetan. Garrantzitsua gaueko parrandari aurre egiteko. 130 lagun bildu ziren urteroko zitan.

Baina afaltzen hasi aurretik, Sorgin Jaien txupinazoa izan zen Okendon. Suziria jaurti baino minutu eskas lehenago, dantza emanaldi polita eskaini zuen herritar gazte talde batek. Eta Sorgin Jaietako lantalde feministak irakurketa bat ere egin zuen: aldarrikatu zuten kaleak eta festak emakume sorginenak ere badirela, eta autodefentsa feministara deitu zuten. Gure Esku Dago dinamikako kideak ere gonbidatu zituzten txupinazora, eta erabakitze eskubidearen alde eginda hasi zituzten festa alternatiboak.



Sorgin Jaietako lantalde feministak irakurketa bat egin zuen suziria lehertu aurretik. TXINTXARRI



Sorgin Jaietako hasiera eman aurretik, dantza emanaldiak eskaini zituzten gazteek. TXINTXARRI



Semblante Andaluz Elkarteak izan da aurtengo festaren suziria piztu eta hasiera emateaz arduratu dena. Kolorez bete zen plaza.



Bi dantza emanaldi egin zituzten sorgin eta aztiak Okendo plazan. TXINTXARRI



Ttakun Kultur Elkartearen eskutik, zikiro afaria egin zen udaletxeko arkupeetan. TXINTXARRI



Okendo plaza. TXINTXARRI



Herritarrek pozarren ekin zieten festei arratsaldeko txupinazoarekin. TXINTXARRI



Lasarte-Oriako Gure Esku Dagok jaurti zuen aurtengo Sorgin Jaietako txupina. TXINTXARRI

Josue

Igeltseritza

Jaiak ondo igaro izana espero dugu!

Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak

Estalkien berrizatzeak

Barruko berrikuntzak

Gremioen koordinaketa

☎ 606 37 21 05 | Atallu pol. atallu, 28 | USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net



Urtero legez, Okendo plazatik atera eta Kale Nagusia zeharkatu zuen gero danborradak. TXINTXARRI



Gustura egin zuten dantza herritarrek, Stylo taldearen doinuez lagunduta. TXINTXARRI



Skateo taldeak kontzertu bikaina eskaini zuen Okendo plazan. TXINTXARRI



**INTZA
ELKARTEA**

Sagardotegi kalea, LASARTE-ORIA - Tel: 943 36 15 34

*Ondo pasa izana
espero dugu!*



Danborrek eta festak hartu dute gaua

Gogotsu hartu zuten lasarteoriarrek lehenengo festa gaua. Eguneroko gaua izan da: eguraldiak ez du batere lagundu baina ez da oztopo izan kalera atera eta sanpedroez gozatzeko. Danborrek markatu zuten ekainaren 28ko gauko erritmoa. ATLO taldeko kideek urtean zehar gogor entsegatutakoa plazaratu zuten. Okendon ekin zioten danborrak astintzeari. Jo zituzten hainbat pieza ezagun, Lasarte-Oriako ereserkia barne. Gero, herrian barrena ibili ziren kaleak alaituz. Hori baino lehen, eskerrak eman zizkieten Buenetxea eta Abend tabernei, urteotan guztietan danborradari emandako laguntzagatik.

Bien bitartean, hainbat herritar animatu ziren dantza egitera, eta Isla plazara joan ziren gorputza astintzera. Stylo taldearen doinu dantzagarriekin gau ederra igaro zuten. Hori ez zen izan lehenengo parranda eguneko kontzertu bakarra. Sorgin Jaiak antolatu zituzten pare bat: Zaparra eta Skakeo taldeak ibili ziren egurrean Okendo plazako oholtzan. Ez zen izan parranda jendetsuena, baina gaueko ordu txikiak arte etxera erretiratu ez zirenek primeran hasi zituzten festak. Kontzertuak bukatu eta gero musikak jarraitu zuen Okendo plazan, Sorgin Jaiak txosnan. Horrez gain, lepo egon ziren baita ere herriko tabernak. Askotan esan ohi da indarrak gordeko direla festa egun handienetarako, baina gero ez da betetzen: urtebetez itxaron ostean zaila da gogoei eustea eta etxera goiz joatea. Argi geratu zen hori asteazken gauetan.



Sukaldariak erakutsi zuten trebeak direla danborra jotzen. Egurrezko kupelak astindu zituzten. TXINTXARRI



Udaletxe zahar parean geratu ziren danbor joleak. Hainbat minutuz jo zuten bertan. TXINTXARRI



www.hipodromoetorbidea.com



2 LOGELA 191.000€-TIK
(10%) BEZ-arik GABE

3 LOGELA 244.000€-TIK
(10%) BEZ-arik GABE

KOKAPEN PAREGABEA

**HIPODROMO
ETORBIDEA**
L A S A R T E
www.hipodromoetorbidea.com

943 372 400
Salmenta bulegoa:
Mugako ibilbidea 1, 5. bulegoa
Lasarte-Oria, Gipuzkoa
hipodromo@uriasgrupo.com

EKAINAREN 29a

Kirolean eta kantuan

Lehenengo parrandaren ondoren baten batek lo egiteko premia bazuen, leihoak ondo itxi beharko zituzkeen, goizean goiz kantari esnatu baitzen herria. Ttiriki-Ttarraka taldeko trikitixa eta pandero joleek hasi zuten eguna diana joaz; Etxemadurako danbolin joleek jarraitu zuten gero kalea girotzen; eta Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako kantujirak segitu zuen dantzan eta kantuan, Xumela abesbatzarekin batera. Indarrak berritzeko, Extremeña elkarteok egin dastatzea egin zuten Okendo plazan. Kantuan bakarrik ez, kirolean ere aritu ziren goizetik. Herri kirolen erakustaldia egin zuten Elizatze plazan. Baina omenduarentzat izan zen batez ere egun berezia, Semblante Andaluz elkartearentzat: omenaldia egin zioten Manuel Lekuona kutluretxean. Musika, dantza eta kolorea ez ziren falta izan ekitaldian.



Ttiriki-Ttarrakako musikariek esnatu zuten herria. TXINTXARRI



Extremeña elkarteak miga goxo askoak prestatu zituen. TXINTXARRI



Xumela abesbatzako lagunek kantujira egin zuten herrian barrena. TXINTXARRI



Kantuan bakarrik ez, dantzan ere ongi moldatzen dira Xumelako kideak. TXINTXARRI



Villa Mirentxuko trinketeen palan jokatu zuten emakumezkoek. TXINTXARRI



Herri kirolak izan ziren protagonista Elizatze plazan. TXINTXARRI



Lokotx bilketa izan zen probetako bat. TXINTXARRI



Zambra taldeak ederki egin zuen dantza Semblante Andaluzen omenaldi ekitaldian. TXINTXARRI



Hunkituta eman zituen eskerrak Semblante Andaluzeko lehendakari Jose Perezek. TXINTXARRI

*Ondo pasa izana
espero dugu!*



ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Txistorra
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Basurde burua
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria • Tel: 943 36 12 78 / 943 36 16 55 / 943 36 24 51



Lasarte-Oriako hainbat sagardotegitako sagardoa dastatu ahal izan zuten herritarrek. TXINTXARRI

Gazteak olinpiadetan, eta denak jan-edanean

Bezperako zikiroz ahaztuta, sardinak eta sagardoa dastatzeko aukera ezin hobea izan zuten lasarteoriarrek. Arratsaldeko ekitaldiekin hasi aurretik eurik mehatxu egin bazuen ere, eguzpi izpiak agertu eta herritar ugari animatu ziren Okendoko ekintzetan parte hartzera. Ttakun Kultur Elkarteak eta Aterpea Merkatarien Elkarteak antolatutako sagardo eta sardina dastaketa izan zen bertan. Jende ilara luzea ikus zitekeen sardinak hartzeko zain.

Bitartean, Biyak Bat helduen egoitzako kideek osatutako konpartsak elkartetik abiatu eta Lasarte-Oriako kaleetan barrena ibili ziren txarangaren doinuek lagunduta. Une berean, Sorgin Jaiek antolatuta, gazteen arteko olinpiadak egin zituzten BM supermerkatuaren aurreko plazan, eta giro ederrean aritu ziren elkarren arteko norgehiagokan. Aurreko egunean edandakoak izerditu zituen batek baino gehiagok.



Aterpe Merkatarien Elkarteak sardinak banatu zituen Okendora gerturatu zirenen artean. TXINTXARRI



Biyak Bat egoitzako kideek ederki zeharkatu zituzten herriko kaleak, kalejiran. TXINTXARRI



Euria eta eguraldi goibela ez ziren oztopo izan plazara gerturatu eta edari freskoaz gozatzeko. TXINTXARRI



Ttiriki-Ttarrakako trikitilariekin dantzan aritu ziren Okendon bildutakoak. TXINTXARRI



Euskal dantza gidatuak ere dantzatu zituzten plazan bildutakoek. TXINTXARRI



Gazte talde bat, proba bat hasi aurreko jarraibideak entzuten. TXINTXARRI



Zenbait proba gainditu behar izan zituzten gazteen arteko olinpiadetan. TXINTXARRI

aldizkariak
ESKU-ORRIAK
liburuak
katalogoak
AGENDAK
kartelak
EGUTEGIAK
papeleria
koadernoak
LOGOTIPOAK

INPRENTA
offset eta digitala

DISEINU
GRAFIKOA

DISEINU
EDITORIALA

antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus
www.antza.eus

*2018ko San Pedroak
gero eta gertuago!*

Kantua, gaueko protagonista

Urtero moduan, sanpedroetako ekitaldi berezietakoa izan zen bertso saioa; aurten Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi, Ane Labaka, Maialen Lujanbio, Unai Muñoa eta Julio Soto igo ziren oholtza gainera. Baina gaueko bertsolari bat nabarmendu behar izatekotan, zalantzarik gabe Patxi Etxeberria litzateke hori. Ia 60 urtez aritu da plazaz plaza bertsotan, eta 40 urte baino gehiagoan ez du hutsik egin sanpedroetako bertso saioan. Horregatik eskerrak eman zizkioten Etxeberriari, eta hark ikus-entzuleak ere agurtu zituen. Dagoeneko plazak utziak ditu, eta zaila izango da berriro oholtza baten gainean ikustea.

Saioaren amaieran iritsi zen momenturik hunkigarriena: bertso eskolako ikasleek bi bertso kantatu zizkioten Etxeberriari, eta lore sorta bat jaso zuen bertsolarien partetik. Kantari beteranoak agurreko lau bertso kantatu zituen: esker oneko hitzak besterik ez zituen izan. Manuel Lekuona kulturetxe osoa zutik jarri zen bertsolaria txalotzeko.

Baina kulturetxetik kanpo ere aritu ziren kantuan. Bertsio gaua egin zuten Okendo plazan, Sorgin Jaien egitarauaren barruan. Herriko musikariek talde ezagunen kantak jo zituzten, hala nola, Iron Maiden, ACDC eta La Polla Records.

Gorputza astintzea nahiago zutenek ere bazuten horretarako aukera: Jaizkibel plazan Azabache taldeak jo zuen, eta kanta zahar zein berriagoekin dantzan jarri zituen bertaratutakoak.



Saio borobila egin zuten bertsolariak Manuel Lekuona kultur etxean. TXINTXARRI



Bertso eskolako lagunen eskutik jaso zuen lore sorta Patxi Etxeberriak. TXINTXARRI



Azabache taldeak dantzan jarri zuen Jaizkibel plaza. TXINTXARRI



Gau giro polita egon zen txosnetan. TXINTXARRI



Talde ezagunen bertsioekin gozatu zuten Okendo plazara gerturatutakoek. TXINTXARRI



Abesteko dohainak erakutsi zituzten herritarrek karaokean. TXINTXARRI

Garcia
AUTOBUSAK

Nafarroa etorbidea 32-2.A
(Leku-Eder etxea) - ZARAUTZ
Tel: 609 479 478

info@garciabus.com - www.garciabus.com



*Jaiez disfrutatu izana
espero dugu!*

- Edozein eratako bidaiak egiteko zerbitzu aproposak
- Bestelako zerbitzuak

Ekainaren 30a

Buruhandietatik ihesi

Euriaren mehatxupearan hasi zen eguna, festetako beste asko bezala; haurren bola eta toka botaldia bertan behera geratu zen, eguraldi txarrak beldurtuta inor azaldu ez zelako. Andatza parkeko puzgarriak ere zapuztu zituen euriak; plaza hutsik eta putzuz beteta geratu zen. Baina, zorionez, su-eten bat eman zuen gero eguraldiak, eta Biyak Bat elkarteko jubilatuek dantza erakustaldia egin ahal izan zuten. Lerroko dantzak ikusgai izan ziren Okendo plazan, eta jendetza bildu zen ingurura. Loidibarren frontoiaren babespean zeuden haurren pilota finalak ikustera joan zirenak. Frontoia bete egin zen pilotarien jarduna gertutik ikusteko. Partiden ondoren, denek jaso zuten saria, denboraldiaren aitortza gisa.

Erraldoiak eta buruhandiak ikustera joan ziren haurrak ere egin zuten ariketa fisikoa; buruhandietatik ihesi lasterka egin behar izan zuten. Halere, izan zen buruhandiei aurre egin zienek ere. Ttiriki-Ttarraka taldeko musikariek alaitu zuten giroa, bertaratutakoek Blas de Lezo kalea zeharkatzen zuten bitartean.



Euriak atsedendaldi bat emanda, lerroko dantzen erakustaldia egin zuten. TXINTXARRI



Loidibarren frontoian jokatu zituzten haurren pilota finalak. TXINTXARRI



Biyok Bat jubilatuen elkarteko kideak, dantza erakustaldia egiten, Okendo plazan. TXINTXARRI



Haurren finaleko beste une bat. TXINTXARRI



Txpaledunek ez ezik, parte hartzaile guztiek jaso zuten oroigarria eta saria. TXINTXARRI



Bada buruhandiei aurre egiten saiatu zenik. TXINTXARRI



Ttiriki-Ttarrakako musikariek lagundu zituzten buruhandiak eta erraldoiak. TXINTXARRI



Buruhandi eta erraldioen taldea, Blas de Lezo kalean. TXINTXARRI



AIZPURUA
Pinturak

*Ondo pasa
izana espero
dugu!*

- Pintura plastikoak bereziki
- Nahi duzun kolorea egingo dizugu momentuan

Zumaburuko industrialdea, Lasarte-Oria
TL. 943 36 21 53

Jaietan gozatu izana espero dugu!
Bizikleten salmenta eta konponketak



MKL txirrindak

Geltoki kalea 25 atzealdea, LASARTE-ORIA
Tel.: 943 36 16 14





Barre eta algara ugari egin zuten herritarrek Andaluziako txirigotekin. TXINTXARRI

Euria ez zen izan festa geratzeko aitzakia

Arratsaldean zehar euria izan genuen tarteka Lasarte-Orian, eta ekintza batzuk bertan behera utzi behar izan zituzten. Esaterako, Andatza plazan motorzaleek egitekoak ziren *freestyle* erakustaldia. Manuel Lekuona kultur etxean txirigotekin gozatu zuten herritarrek. Aurtengo omendua Semblante Andaluz elkarteak izanik, Andaluziako ekintza bereizgarria ekarri du aurrean udalak. Sevillako "Esta chirigota cae bien" eta San Jose de la Rinconadako "No te vayas todavía" taldeak arduratu ziren algarak sortzeaz.

Sanpedroetako azken txanpari ekiteko gogoz zirela erakutsi zuten herriko gazteek bertso poteoan. Tabernaz taberna aritu ziren trikitixaren eta panderoaren laguntzaz. Horren ostean, Okendo plazan bildu ziren herritar mordoak, eta espetxeetan dauden senide eta herritarrak gogoan, manifestazioa egin zuten herriko kaleetan barrena.

Gaztetxoak, berriz, Sasoeta Sasoianek antolatutako *minidiskoan* bildu ziren Jaizkibel plazan.



Gaztetxoek ere ederki pasa zuten *minidiskoan*, koreografoek markatutako pausuei jarraituz. TXINTXARRI



Trikitilari eta panderojoleen laguntzarekin, tabernaz taberna dantzatu zuten gazteek. TXINTXARRI



Sasoeta sasoian elkarteak txokolatada eta diskoa antolatu zituen Jaizkibel plazan. TXINTXARRI



Martin Berrizbeitia, Beñat Iguaran, Ane Labaka eta Lierni Rekondo bertsolariek girotu zuten bertso-poteoa. TXINTXARRI



Presoei elkartasuna adierazteko manifestazioa. TXINTXARRI



Geltoki kalea 21 • Tel.: 943 362467 Faxa: 943 372794 • Lasarte-Oria
E-maila: muebleszubi@hotmail.com





Urtero legez, herritar ugari bildu zen Sorgin Jaietako herri afarian. TXINTXARRI

Herri afaria, kontzertuen aurretik

Gauari gogotsu ekiteko, indarrak berritza komeni izan ohi da. Eta sabela betetzeko aitzakia paregabeak dira horretarako herri afariak. BM supermerkatuaren kanpoaldean afaldu zuten askok, Sorgin Jaiak antolatutako gaualdian. Ondoren, kontzertuen txanda iritsi zen. Iceberg taldeak jo zuen Isla plazan. Musika modernoagoa nahiago zutenek Okendo plazara jo zuten: Ze Esatek! taldeak mugiarazi zituen bertaratutakoak. Los del Gas taldeak hartu zion lekukoa gero talde euskaldunari.

Dinbi-Banda batukada taldearen erritmoa jarraitu zuten gero askok, eta izerditan amaitu zuten. Erritmo tropikalekin alaitu zituzten kaleak perkusionistek. Euria ez zen aitzakia izan konpartsaaren atzetik dantzan joateko.

Gaeko ordu txikiak arte iraun zutenek izan zuten dantza egiteko aukera gehiago: Pablo Solo eta Furonia DJ lasarteoriatarrek jarri zuten erritmoa Okendo plazan. Gaupaseroek Gautxori txarangarekin jarraitu zuten, eta gosaltzeko txokolatada prest zuten Elizatze plazan 06:00etan. Ausartenak geratu ziren ondoren zezenetara.



Doinu dantzagarriak, Iceberg taldearen eskutik. TXINTXARRI



Los del Gas taldeak musika eta umorea uztartu zituen. TXINTXARRI

XIRIMIRI
ELKARTEA



Sorginak bagoaz zuengana,
ilargipean, ekarriko
zaituztegu gure ondora,
erratzaren gainean.
Etxean nahi zaituztegunako
DANTZAN AKELARREAN

...eta zabalik!



Ze Esatek! taldearen ska musikarekin gozatu zuten Okendo plazan. TXINTXARRI



Dinbi Bandaren batukadarekin, herritarrek dantzan zeharkatu zituzten kaleak. TXINTXARRI



Zezen suzkoaren atzetik korrika egiten aritu ziren txikienak. TXINTXARRI



Batukadak, beste behin, harrera ona izan zuen parrandazaleen artean. TXINTXARRI

COPILASARTE
 COPISTERIA - PAPELERIA

**FOTOKOPIAK TXURI BELTZEAN
 ETA KOLORE DIGITALA**

- Koadernaketak • Plastifikatuak
- Bulegoko materiala
- Material informatikoa

Ploterra, eskanerra eta planoen kopiak
 Kale Nagusia 34, behea 1 • Lasarte-Oria
 Tel.: 943 366 930 - Faxa: 943 366 931
 copilasarte@euskalnet.net

adats

ile-apaindegia

*Ondo pasa izana
 espero dugu!*

**Geltoki kalea 3
 MUGIKORRA: 600 523 988
 LASARTE-ORIA**

**ERRAUSKETARIK EZ
 EZ HEMEN, EZ INON!**

TRUMOI
 TABERNA

Hipodromo Etorbidea 3, LASARTE-ORIA



Haurren danborradaren burrunbarekin hasi zen jaietako azken eguna. TXINTXARRI



Jalguneko lagunek ere danborrak astindu zituzten. TXINTXARRI



Euria dela eta, Loidibarren pilotalekuan egin zen danborrada. TXINTXARRI



Boloetara jokatu zuten goizean. TXINTXARRI

DANI karrozeria

**Trebeak gara
kolpe handiak konpontzen**

- Kabina labeduna
- Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
- Tapizatuen garbiketa



Jaiak ondo igaro izana espero dugu!

Zirkuitu ibilbidea 12
20160 · LASARTE-ORIA
Tel. 943 37 14 40
Mugikorra: 608 39 18 85
carrocierasdani@carrocierasdani.com
www.carrocierasdani.com

Uztailaren 1a

Azken egunari ekiteko, bakailaoa

Festak azken unera arte aprobetxatu nahi izan zituzten askok, eta gogotsu ekin zioten goizean goizetik. Boloetara jokatu zuten Michelinen. Baina goizeko ekitaldi izarra bakailao lehiaketa izan zen. 25 parte hartzaile aritu ziren sukaldean, denak maila altukoak. Hiru orduren ostean, epaimahaikideek erabaki zuten Angel Rubioren eta Tomas Gonzalezen jakia saritzea. Umeek ere izan zuten beraien unea goizean. Haurren danborrada egin zuten Loidibarren frontoian. Dirudienez, gehienek aski izan zuten bezperako herri afariarekin, eta herri bazkaria ez zen arrakastatsua suertatu. Eguraldi txarragatik arkupetan egin zuten, eta pare bat kuadrilla besterik ez ziren agertu.



Herri bazkariak parte hartu zuten kuadrilla bakanetakoa. TXINTXARRI



Bakailo goxoa prestatu dute aurten ere herritarrek. TXINTXARRI



Saria bakar batzuek soilik lortu bazuten ere, denek pasa zuten primeran. TXINTXARRI



Bakailaoa prestatu ostean, egindakoa aprobetxatu beharra izaten da. TXINTXARRI

ARGAZKI ESTUDIOA · EZKONTZAK
UME TA FAMILIA SESIOAK · BOOK
JAUNARTZEAK · HAURNALDIK
JAIO BERRIAK · PUBLIZITATEA · BIDEOA

eztiphoto

WWW.EZTIPTHO.COM/ WWW.LILIBAT.EUS
Golf enparantza 4 (behea). Lasarte Oria
943 900 565 - info@eztiphoto.com





Go!Azen taldeko hiru kide hurbildu ziren Isla plazara. TXINTXARRI

Erraustegiaren aurkako aldarria

Festak ongi pasatzeko soilik ez, aldarrikapenerako ere izan ohi dira. Ingurumenarekiko kontzientzia handia da herrian, eta erraustegia askoren kezka iturria bada. Horregatik, errauste plantaren aurkako dantzaldia egin zuten Okendo plazan: *Hartu nahi dut arnas*. Erraustegiaren aurkako mugimenduko kideek mezu argia zabaldu zuten: "Erraustegia geratzeko garaiz gaude".

Haurrentzako ere izan ziren ekitaldiak azken egunean. Go!azen taldeak ikuskizuna eskaini zuen Isla plazan. Eguraldi txarra dela-eta gurasoek aterkiekin babestu behar izan zituzten haurrak askotan. Bestalde, Artistas del Gremio fanfarreak giro paregabea jarri zuen herrian, bertaratutakoak mugiarazita. Ikuskizun bat baino gehiago egon zen kalean: *Se fini* obra antzeztu zuen Trapu Zaharrak konpainiak.

Askok urtero espero zuten ekitaldia da mus txapelketa: 46 bikote aurkeztu ziren Okendoko arkupetara. Herriko bi kirolari handien elastikoak izan zituzten saritzat irabazleek: Axier Arteaga pilotariarena, eta Iraia Iparragirre futbolariarena.



Artistas del gremio fanfarreak alaitu zuen larunbat arratsaldea. TXINTXARRI



Haurrak eta xexena Isla plaan. TXINTXARRI



SAUSTATXO KULTUR ELKARTEA

*San Pedro jai zoriontsuak
igaro izana espero dugu!*

Uzturre plaza 8 • LASARTE-ORIA • 943 36 49 42





Erraustegiaren aurkako elkarretaratzean egindako dantza. TXINTXARRI



Hainbat herritar kuadrilla elkartu ziren Okendo plazan, mus txapelketa jokatzeko. TXINTXARRI



Trapu zaharra konpainiaren Se fini! obra Elizatze plazan. TXINTXARRI



Mus txapelketako irabazleak sariak jaso zituzten uanean. TXINTXARRI



UDABERRI elkarte

Ondo pasa izana espero dugu!

Andatza plaza z/g, behea - Tel. 943 37 19 83 - LASARTE-ORIA





Zezensuzkoa azkenekoz ibili zen Kale Nagusian barrena lasterka. TXINTXARRI



Zenbait herritarrek gorputza mugitu zuten, Ibai Berriak taldearen doinuen laguntzaz. TXINTXARRI

Azken gaua, azkenera arte

Su-festa eta kontzertuak izan ziren azken parranda gaueko protagonistak. Laugarren festa eguna zuten lasarteoriarrek, eta, nekea agerikoa bazen ere, etxean geratu ordez kalera atera ziren ekintzez gozatzera.

Valecea piroteknia etxe arabarrak ireki zuen gaua: su-festa ikusgarria prestatu zuen, euriak zapuztu ez zuena. Zezensuzkoa ere ibili zen Kale Nagusian barrena lasterka. Jaizkibel plazan, berriz, hainbat herritarrek mugitu zuten gorputza Ibai Berriak taldearen doinuez lagunduta. Azken gauean ere Okendo plazako emanaldiek bildu zuten jende gehien. Kanaria Handitik etorritako Efecto Pasilloren kontzertua izan zen lehenengoa. Estatu mailan oso ezagun bilakatu dituen abestietako asko oholtzaratu zituen larunbatean: *No importa que llueva* (azken gauerako oso aproposa), *Pan y mantequilla*, *Funketon*, *Cuando me siento bien* eta beste hainbat. Festa gaueko ordu txikietara arte luzatu zen. Dantza egin zuten parranderoek Gaitzerdi erromeria taldearekin eta baita Rukularen musika estilo nahasketarekin. Etxera goiz joan nahi ez zutenek DJaren doinuekin segitu zuten parrandan.



Kanaria Handitik etorritako Efecto Pasillo taldearen emanaldiko une bat. TXINTXARRI



Ondo pasa izan espero dugu!

ZUBIETA MOTOR

- Mekanika eta karrozeria konponketak
- Auto semiberri, erabili eta KM0 salmenta
- Peugeot motorren salmenta



Oria Etorbidea 4, 6. lokala - LASARTE-ORIA - Tel: 943 36 00 09 - Faxe: 943 37 26 89 - zubietamotor@centrauto.es



Valecea piroteknia etxe arabarra arduratu zen larunbat gaueko su-festaz. TXINTXARRI



Musika estilo nahasketa interesgarria eskaini zuen Rukulak. TXINTXARRI



Erromeria giro bikaina sortu zen Okendo plazan, Gaitzerdi taldeari esker. TXINTXARRI



**LASARTEARRA
KIROL ETA KULTUR
ELKARTEA**

*San Pedro jai zoriontsuak igaro
izana espero dugu!*

Erribera kalea 10, atzealdea
943 36 29 97 - Lasarte-Oria

SUDOKUA

2	5				9	8		3
8	9					4		
1	7							2
		8						5
		5	6		7			
9		2	3	1	5			8
				9	4			
5		9						7
			8			1	3	9

Sudokua buruhauste matematikoa da eta, bere helburua, 3x3ko karratu txikiz osatutako 9x9 tainako koadrikula osatzea da. Karratu txiki horietan, 1 eta 9 arteko zenbakiak ipini behar dira, beti ere ilara edota zutabe berebean zenbaki berdina errepikatu gabe

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
 EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
 KIROLDEGIA: 943 376 182
 MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:
 943 376 181
 GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
 KIUB: 943 361 605
 UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
 MUNTTERI AEK: 943 372 863
LARRIALDIKO TELEFONOAK:
 OSASUN ZENTROA: 943 007 960
 DYA: 943 464 622
 GURUTZE GORRIA: 943 363 953
 UDALTZAINAK: 943 362 442
 ERTZAINZAK: 943 288 888
 SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

Astelehena, 3	GIL
Astearte, 4	ORUE
Asteazkena, 5	DE MIGUEL
Osteguna, 6	LASA
Ostirala, 7	GANDARIAS-URIBE
Larunbata, 8	LASA
Igandea, 9	LASA
Astelehena, 10	ACHA-ORBEA
Astearte, 11	URBISTONDO
Asteazkena, 12	GANDARIAS-URIBE
Osteguna, 13	ORUE

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: L. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIAK: 22:00-9:00

Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO: Txintxarri erredakzioan 943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90 €
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80 €

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

GUTUNA

Erraustegiaren aurkako gose grebaren digestioa

Erraustegiaren Aurkako Easo Plazako Gose Grebaliak

Jada astebete pasa da sei herritar gipuzkoarrok Donostiako Easo plazan erraustegiaren gezur handiaren aurkako gose grebari bukaera eman genionetik. Gure lanak, familiak eta etxeak utzi eta astebetetz egon gara kalean elikagairik hartu gabe, gure gorputzak borrokarako tresnatzat hartuz, aire garbiaren eskubidea eta osasun eskubidea aldarrikatuz. Oraingoan berriz ere plaza publikora azaltzea erabaki dugu, borroka ekimen honek utzi diguna zuekin partekatzeko asmoz.

Lehenenik nabarmen adierazi beharreko sentimendu bat jarri nahi dugu erdigunean. Poza. Poza sortu baitugu ekimena pentsatzeak, antolatzeak eta egiteak ere. Poz handia. Asebetetzen gaituen borrokaren poza. Gauzak ongi, justu eta bihotzez egitearen poza.

Poza sentitu dugu herriaren bizi nahia hain gertu somatu

dugunean, baita Amara auzoko elkarte sarearen babesa jaso dugunean ere. Hainbat auzotarrek beraien etxeak ireki dizkigute, hainbeste estimatzen genituen dutxa beroak eskainiz. Aipatzekoa ere hainbat tabernen babesa eta laguntzeko prestutasuna. Jendearen sostengua eta babesa izan ditugu aste osoan zehar hutsik egin gabe.

Poza sentitu dugu hainbat eta hainbat herritarrek beraien esker ona adierazi digutenean. Poza, antolatutako batzar, hitzaldi, dantza eta musika emanaldi, giza kate eta gainontzekoetara jende asko gerturatu delako.

Eta uste dugu poz honetatik abiatuz gelditu dezakegula behin betiko Zubietako erraustegiaren egitasmoa. Kaletik eta herri mugimenduaren indar, haserre eta pozetik.

Haserre ez baitugu ekiditen, ez. Gure baitan baitaude biak, poza ta haserre. Nola ez gara ba haserretuko eskura ditugun datuak ezagututa? Nazioarteko ikerketa zientifikoek diotenez, hainbat osasun arazo eta minbizi

motek nabarmen egiten dute gora bereziki erraustegitik 10 kilometroren bueltan (Donostia, Astigarraga, Urnieta, Lasarte-Oria, Usurbil, Billabona, Andoain, Hernani, Orio...), eta eragin hori bereziki da kaltegarria haurrentzat. Esaterako garuneko minbiziak bikoiztu egiten dira, hezurretakoak eta malformazio kongenitoak hirukoiztu. Heriotzak %13 inguru gehitu ohi dira. Kaltea lurrari eta gure ondorengoei ere egingo zaie egitasmo zentzugabe honekin jarraituz gero. Onartezina den 35 urterako zorrera kondentzen gaituzte.

Horretaz gain badakigu bultzatu nahi duten egitasmo hau ekiditeko alternatiba badagoela eta askoz lanpostu gehiago sortzeaz gain, nabarmen merkeagoa eta osasuntsuagoa dela. Horretaz gain, Europatik datozen irizpideekin ere bat dator. Gipuzkoan gainera urrats garrantzitsuak eman dira bide horretan.

Zein politikari klasek agintzen du Foru Aldundian? Datu hauek

guztiak eta gehiago esku artean izanda, nola liteke erraustegiaren egitasmoarekin jarraitzea? Erraustegia eginez gero diru publiko izugarri jasoko duten gutxi horientzat gobernatzen duten politikariak ote ditugu Foru Aldundian? Ez al lukete guztion onurarako aritu behar? Zertarako behar ditugu bestela?

Kalean egin dugun aste honetan herritar askorekin hitz egiteko aukera izan dugu. Agintariak lotsagabeki ezkutatzeko duten informazioa zabaltzeko baliatu dugu, baita herritarrekin iritziak partekatu eta eztabaidatzeko ere.

Eta berriro ere ikusi dugu, informatua dagoen herritarrek ez duela erraustegirik nahi, gutxiago etxe ondoan. Baina hau Foru Aldundiko agintariak ere badakite, horregatik ari dira etenik gabe, informazioa ezkutatzeko eta aurkako protestak isiltzen. Horretarako, egun hauetan salatu dugun bezala, hainbat komunikabide erabiltzen dituzte, besteak beste guztion diruarekin ordaindutako EITB.

Agintari hauek herritarrek etsi eta borroka uztea bilatzen badute ere, guk esan behar dugu inoiz baino kementsuago eta adoretuago gaudela, gu herritarren osasun, duintasun eta oinarrizko eskubideen alde ari garelako. Konbentzimendu horrek ematen digu orain arte bezala informatzen eta herritarrek aktibatze lanetan aritzeko indarra.

Planteatzen dugun eraldaketa sozialaren alde lan egitea oso duina eta beharrezkoa da. Gure buruei eta gure seme-alabei zor diegu etsi gabe bide horretan jarraitzea. Gutako bakoitzak txikitik eraginda, helburu handiak lor ditzakegu. Besarkada eta animo handiak guztientzat. Lurra eta herria bizirik. Zubietako erraustegia behin betiko gelditu!

Irantzu Jauregi
 Iñaki Armendariz
 Teresa Lopez de Munain
 Kepa Olaiz
 Aran Garmendia
 Mila Zabalo

Eskerrik asko gure ekintzetan parte hartzera animatu zareten guztiei.

Ondo pasa izana espero dugu!

· Amaraun Kluba · Gazte Kluba · Kuadrillategi · Faktoria · Txokoak · Udalekuak · Eskola Kirola · Txintzarri · Zerbitzuak saila
· Kultura saila · Ttakunenea · Elkartea



Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria
943 37 14 48
ttakun@ttakun.eus

TABERNA KEBAB



Jaietan ondo pasa izana espero dugu!

DURÜM menua

Txahala edo oilaskoa
+ patatak
+ freskagarria **6,50 €**

KEBAB menua

Txahala edo oilaskoa
+ patatak
+ freskagarria **6,00 €**

DÜRUM menu

EROA!!



7,00 €

Txahala edo oilaskoa
+ patatak
+ freskagarria

Oilasko errea

+ patatak
+ entsalada

10,00 €



Oilasko frijitua



+ patatak
+ freskagarria **7,00 €**

Lahmacun menua

Txahala edo oilaskoa
+ patatak
+ freskagarria **7,50 €**

Hamburgesa menua

+ patatak
+ freskagarria **6,00 €**

Hamburgesa 4,00€

6 oilasko hegal

+ patatak
+ freskagarria **6,00 €**

6 oilasko Nuggets

+ patatak
+ freskagarria **6,00 €**

Oilasko Pop Corn-ak

+ patatak
+ freskagarria **6,00 €**

• Terraza zerbitzua • Karta zabala

• Eramateko zerbitzua

Doan: Lasarte-Oria, Usurbil, Añorga,
Zubieta eta Errekalde *Gutxieneko eskaera 10€

Hitz egiguzu
euskaraz!

Sagardotegi, 1 • LASARTE-ORIA • 943 369 533 / 632 483 161

JUST EAT

Maitte

B

ETELU

Festetan ondo pasa izana espero dugu!



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzaren administrazioa**



Aralar plaza 4 behea, Lasarte-Oria • Tel.: 943 36 48 86 • www.mbetelu.com